

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Kultur dirulaguntzak 2026

BDNS (Identif.): 895657.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/895657>.

Lehenengoa. Onuradunak

Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke kirol elkarte, talde eta klub publiko zein pribatuak, irabazteko xederik gabe eratuak, egoitza soziala Iruña Okan dutenak edo jarduera udalerrri horretan egiten dutenak, legez eratuta eta Iruña Okako elkarten udal erregistroan inskribatuta badaude.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira administrazio batzarrak, ikastetxeak, udal institutuak eta horien barneko edo horiei atxikitako talde eta elkarteak, kultura edo gizarte xederik ez duten elkarte eta erakundeak eta ikasleen gurasoen elkarteak.

Hauek ere izan daitezke dirulaguntzen onuradun: Iruña Okako udalerrian diharduten irabazteko xederik gabeko entitateak, nahiz eta egoitza soziala bertan ez eduki. Entitate horiei eskatuko zaie Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistro Orokorrean inskribatzea.

Iruña Okako Udalak eskainitako proiekturen baten antzekoa aurkeztzen badu talde edo elkarte batek, udala talde edo elkarte horrekin jarriko da harremanetan, aurkeztutako programa guztien bateragarritasuna bermatzeko.

Diruz lagunduko ez direnak. Deialdi honen aplikazio eremutik kanpo geratzen dira honako jarduera hauek:

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotako inguruabarretakoren batean daudenak.
- Izaeragatik edo xedeagatik Kirol Batzordeari esleitutako jardun eremuekin zuzeneko loturarik ez dutenak.
- Edozein motatako zerga betebeharrak (tokikoak eta Gizarte Segurantzarekikoak barne) egunean ez dituzten erakunde edo elkarteek aurkeztutako eskaerak.
- Ez dira kontuan hartuko aurreko deialdietan emandako dirulaguntzen justifikazio memoria entregatu gabe duten jarduera edo programei buruzko eskaerak.
- Ez dira kontuan hartuko beren jarduera publikoetan indarreko legeria betetzen ez duten elkarte, erakunde eta pertsonen proposamenak (jaiotza tokiagatiko, arrazagatiko, sexuagatiko edo erlijioagatiko diskriminazioa).

Bigarrena. Xedea

Aurrekontu mugak errespetatuz, kirol jarduerak eragindako gastuak finantzatzen laguntzea, baldin eta jarduerok kirol elkarte, talde eta klubek sustatzen badituzte 2026. urtean edo 2025/26 denboraldian Iruña Okan edo udalerrientzat interesgarritzat jo ahal badira.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Iruña Okako udalbatzak 2026ko martxoaren 9ko erabaki baten bidez onetsi zituen. Udalaren web orrian eta Dirulaguntzen Sistema Nazionalean argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Kontsultatu oinarri arautzaileen zazpigarren klausula.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak eta laugarren oinarrian aipatzen diren agiriak aurkezteko, 30 eguneko epea izango da, deialdia argitaratu ondorengo egunetik hasita.

Langraiz Oka, 2026ko martxoaren 25a

Alkate-lehendakaria

MIGUEL ANGEL MONTES SANCHEZ